

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ORDIZIAKO UDALAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Ordiziako Udalaren 2007ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Honela, bada, aurrekontuaren atalean azpimarratzekoa da kredituen habilitazio bat onetsi dela finantzaketa iturri modura 2 milioi euroko hainbat gordailuren itzulera etorkizunean baliatuta; ordea, ezargarria den arautegiak eskatzen du aitortutako eskubideak egiaz bildu behar direla eta horregatik, ekitaldian onetsitako aurrekontu-aldaketan zati bat, 1,8 milioi eurokoa, epe laburrera erabilgarria ez zen Geldikin baten bitartez finantzatu dira, salbuespen izanik Udalak zergen aurretiazko iraungipenagatik zigorrak ordaindu izana.

Langileriarri dagokionez, HKEEk adierazten du Udalak, Udalbatzak hala onetsita, ekitaldian plantillako 74 langileei guztira 12 mila euroko osagarria ordaindu diela ordainsariaren osagarri modura lan egindako urte kopuruaren arabera; ordea, osagarri hau ez dago Euskal Funtzio Publikoaren Legean aurreikusitak dauden ordainsari kontzeptuen artean. Berebat, bitarteko 8 funtzionarioen kontratazioan ez da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: kontratu bat kreditu behar hainbateko eta egokirik gabe esleitu izana; beste kontratu bat publizitaterik

gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu izana, lehiaketa zegokionean; kontratu bat esleipen zenbatekoarekiko % 72ko igoerarekin exekutatu izana, dagozkion kontratu aldaketak ez onetsi, ez izapidetu gabe; zerbitzu kontratu bat, arautegiak ezartzen duen denbora-mugaz gaindi luzatu izana; eta hainbat zerbitzu kontratu eta obraren exekuzioan, administrazio kontratazioan buru egiten duten publizitate eta lehia printzipioak urratu izana.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 384 mila euroan gehitu duena.

Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoei dagokienez, legezkotasuna eta urteko kontuak betetzeari buruzko iritzia aldekoa da, San Jose Erakunde Autonomoaren kasuan izan ezik, HKEEK uste baitu urratu egin duela 2007ko ekitaldian jarduera arautzen duen legezko arautegia, txostenean zehaztu diren arrazoiengatik.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2005-2007 aldian aurrezki garbia positiboa izan da baina ez behar hainbatekoa 2006 eta 2007ko ekitaldietako inbertsio maila garrantzizkoa finantzatzeko; horri aurre egiteko diruzaintza geldikin erabilgarria eta beste zorpetze bat baliatu dira. Jada 2008ko urtean, aurrezki garbiak % 28 egin duela behera ikusi da, batik bat Udal Finantzaketarako Foru Fondotik sarrera gutxiago jaso direlako eszenategi ekonomiko berriaren aurrean; ordea, 2008ko abenduaren 31n diruzaintza geldikinak ere gora egin du, inbertsio maila murriztu izanaren ondorioz.